

JAKINARAZTEN DA Alkateak 2021eko azaroaren 2an ondorengo Dekretu hau eman duela:

“Begarako Udalak Administrarien lan-poltsa osatzeko deialdia oinarriak onartu zituen 2021eko uztailaren 23an.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta eta aurkeztutako dokumentazioa azterturik, onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda onartu zen 2021eko irailaren 28an emandako dekretu baten bidez.

Behin-behineko zerrenda onartzen duen erabakian jasotakoa aintzat hartuta eta izangaiak aurkeztutako agiriak aztertuta, 2021eko urriaren 6an erabaki zen onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea.

Ikusita prozesuarekin hastea komeni dela, eta ezinbestekoa dela epaimahaikideak izendatzea,  
**ERABAKI DUT:**

**LEHENENGOA:** Honako hauek izendatzea administrarien lan-poltsa osatzeko prozesuari dagokion epaimahaikideak:

- Mahaiburua : Maria Concepción Ugalde Iceta
- Mahaikideak:
  - o Maria Pilar Azkarate Garitano mahaikide titularra
    - Juan Inazio Galdos Larrea, ordezkoa
  - o Aritz Oteiza Lasagabaster mahaikide titularra
    - Goretti Andrinua Iraolagoitia, ordezkoa
  - o Karmen Urrutia Larrañaga mahaikide titularra
    - Amaia Agirre Kortazar, ordezkoa
  - o Joseba Ezpeleta Irizar Komiteak izendatutako kidea
    - Rosa Errazkin Arrazau, Komiteak izendatutako kidearen ordezkoa
  - o Estepan Plazaola Otadui, euskara frogarako
- Idazkaria: Maria Concepción Ugalde Iceta edo Goretti Andrinua Iraolagoitia hura ez dagoenean.

**BIGARRENA:** Epaimahaikideak azaroaren 4an egingo den bilerara deitzea eta erabaki hau argitaratzea udaleko iragarki-oholean eta udalaren web-orrian.”

#### Ebazpenaren aurkako bideak

*Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, jakinarazpen hau web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.\**

*Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatzian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.*

*Dena den, egokitzat hartzen den beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.*

*LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.*

Bergara, 2021eko azaroaren 25a  
BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

